



**UMANDI GURASO ELKARTEA**  
[www.umandi.net/ampaumandi](http://www.umandi.net/ampaumandi)

## *GURASO ELKARTE BILERA*

---

Umandi ikastolan 2015eko martxoak 18 asteazkena, eta aurrez horretarako deialdia egin ondoren guraso elkarteko partaideak bildu dira, ondorengo hauek bertaratuaz:

Nuria Alonso Lafuente (lehendakaria), Ana Arroyo (lehendakari orde eta diruzaina), Itsaso Imaz (idazkaria), Encarna Bonilla, Yolanda Castillo, Peio Cernadas, Bego Gaviña, , Rita Minguez, Beatriz Sáez, Juan Carlos Saenz, Nerea Salazar, Ainhoa Velez.

Hasiera ordua: 17:00.

Bukaera ordua: 19.30.

### **EGUNEKO AZTERGAIK**

#### **- AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARTZEA.**

Bileraren deialdiarekin batera aurreko akta bidali zen irakurritzat eta onartutzat ematen da.

#### **- IKASTOLAKO JAIA:**

Ikastolako jairako kartel lehiaketa egingo da aurtengoan ere.

Kroserako guraso boluntarioak behar dira. Gutun bat bidaliko da boluntarioak eskatzeko ikastolako jaiaren antolaketarako.. Helmugarako arkuia eskatu egin behar da eta sarietarako trofeoak ere. Helmugan jendea beharko da irabazleen izenak kontrolatzeko.

Dohaitzak eskatu behar dira auzoko dendetan ikastolako jairako.

Kable luzagarria erosi behar da tailerretarako.

Goma eba tailerrarako, goma eba mozteko (gillotina) begiratu behar da ea balio duen.

Tatuai tailerrarako, hennako tatuaiak asko zikintzen dutenez hennazko errotuladoreak badirudi hobeak direla eta ez dutela zikintzen.

Zuhaitzaren apainketarako kutxa bat utziko da sarreran, jendeak egindako zatiak bertan uzteko, gutxi gora behera 30x30 eko zatiak izatea komeni dela adierazi da.

Azkenean tailerrak honako hauek izango dira:

- Eskumuturreko tailerra.
- Goma eba tailerra.
- Makillaje eta azazkal tailerra.
- Txutxe tailerra.
- Tatuai tailerra.
- Majia tailerra.

Ikastolako jaiko bazkarirako menua honako hau erabaki da:

HELDUENTZAT:

Kogolloak

Paella

Oilasko izterrak saltsan

Goxua

Sorbete

Ardoa/kafea/likorea

HAURRENTZAT:

Makarroiak

Solomoa

Postrea

Mahaiak eta aulkiak catering enpresak ekartzen ditu 1,60€ ra buruko.

Guraso Elkarteak bazkaltiar bakoitzeko 1,50 € finanziazen du.

Menuaren prezioa 17 € helduak eta 10 € haurrak.

Seguros Bilbaok festa egunean arratsalderako puzgarri bat eskaini digu, 4etatik 7etara, kanpo ekintzen arduradunarekin hitz egin behar da hiru ordu hauetan zaintzaile bat lortzeko.

- **JOLASEN TXOKOA:**

3. mailako ikasle batzuen gurasoek galdetu dute ea posible izango zen jolasen txokora joatea adin honetako ikasleak orain arte 2. Mailaraino delako.. Orain arte adin honetako ikasleei ez zaie eskaini ekintza hau, batetik, ez zegoelako ikaslerik eta bestetik, eskaintza zabala dutelako adin honetan udaletxetik, foru aldunditik etab. Arduradunek adierazi dute baloratuko dutela.

- **BARATZEA:**

Konpostera itxi egingo da, nahikoa materia organiko daukalako.

Eskolako baratzea baratzeei buruzko Blog batetan sartuko da.

- **SEGUROS BILBAO. ZOZKETA BATEN BAIMENA:**

Seguros bilbao segurtetxeak baimena eskatzen du zozketa bat egiteko ikastola jaiko egunean, seguruaren iraungitze data eskatuaz. Baloratu ondoren baiezkoa emango zaio.

- **ESKUMUTURREKO SOLIDARIOAK:**

Ana Arroyok eskumuturreko solidario bat aurkezten du, haur kantzerraren ikerketarako zuzendua. Eskumuturreko bakoitzak 3 € balio du eta osoki haur kantzerraren ikerketara doa lortutako dirua. Eztabaidatu ondoren ikastolako jai egunean postu bat jartzea erraztasunak emango zaizkie.

- **ESKOLA KONTSEILURAKO GAIAK:**

“El Correo” egunkariak antolatzen dituen bisitak.

Irteeretara tutoreak ez badute nahi edo ezin badute joan, aukera ematea irakasleen artean beste irakasle batzuei joateko irteera horietara.

- **TRANBIAREN ABIADURA:**

Guraso batzuek eskatu dute Guraso elkartearen izenean kexa bat aurkeztea auzotik tranbiaren abiadura altua dela eta. Baiezkoa eman zaio proposamenari.

- **BESTELAKOAK:**

KORRIKA: Guraso arduradun bat behar da. Korrika txikia ikastolak ordaintzen du eta korrika handirako kutxa bat dago sarreran dirua biltzeko.

PATIOKO ARGIA: Eskaera bat egingo da gauetan frontoiko argiak itzaltzeko eta patio erdiko argiak pizteko.

BIZIKIDETZA BILERAKO PROPOSAMENAK: Ikasleek proposatu dute pin-pon mahaien erabilera bultzatzea. Jantoki garaian ikasteko gela bat irekitzea. Jantokiko arduradunak dio, jantokian plater eta edalontzi askoren hausketa ematen ari dela.

6. MAILAKO SASKIBALOI TALDEA: Kanpo ekintzen arduradunak adierazi digu talde honetako entrenatzaile eta guraso batzueganako kexa egon dela beste talde baten partetik. Gure aldetik erabaki da joko garbiaren dekalogo bidaltzea.

MULTISASKI 4. MAILA: Gutun bat bidali zaie gurasoei aktibitatea azalduaz, badirudi ikasleak motibaziorik gabe daudela ez dutelako saskibalo soilik praktikatzen.

EGUERDIRAKO EKINTZA OSAGARRIAK: Mahai tenisa eta Multitxiki proposatuko dira.

Beste aztergairik gabe bilera bukatutzat ematen da 19,30etan.

Nuria Alonso

Itsaso Imaz

-Lehendakaria-

-Idazkaria-